

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1724

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 2koa, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearena, 2024ko irailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako laguntzak ematen dituen, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 2024ko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren de minimis araubidean jasotako laguntzak emateko.

2023ko abenduaren 15ean Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean (CELEX 32023R2831) argitaratu zen 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa.

2024ko irailaren 20an, honako arau erregulatzailerik argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (184. zenbakia): Agindua, 2024ko irailaren 10ekoa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 2024ko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren de minimis araubidean jasotako laguntzak emateko.

Balorazio Batzordeak eskabideak ebaluatu eta txosten teknikoa egin zuen, eta Elikagai Politika eta Industriako zuzendariari helarazi zion 2025eko otsailaren 6an.

2025eko otsailaren 23an, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzak laguntza-deialdi hau emateko behin betiko ebazpen-proposamena eman zuen.

Arau horrek ezartzen duenez, laguntzak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez eman edo ukatuko dira, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak egindako ebazpen-proposamenean oinarrituta.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren arabera, lehen Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari esleitutako laguntzak kudeatzeko eskumenak, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzaren eta Elikadura eta Landa Garapeneko Sailburuordetzaren eskumenekoak dira orain, hurrenez hurren.

Behin betiko ebazpen-proposamena ikusita, ebazpen hau eman da.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean agertzen diren pertsona eta erakundeei eranskin horretan adierazitako xederako eta zenbatekoetan laguntzak ematea. Ebazpenaren guztizko zenbatekoa 459.818,48 euro da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko aurrekontuekin finantzatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 2a.

Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2025eko apirilaren 22a, asteartea

ERANSKINA

GASTROBIKAIN 2024 PROGRAMAREN KARGURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	IFZ	Proiektuaren izena	Diruz lagun daitekeen inbertsioa (eurotan)	Lortutako puntuazioa	Dirulaguntzaren ehunekoa	2025eko laguntza (euroak)
1	00001-GBK2024-52	B20788550	Steldan Kanpandegi, S.L.	Gastrobikain 2024 Kokotxa jatexea	102.387,76	% 40	40.955,10
2	00002-GBK2024-52	B20929907	Restaurante Kaia Kaipe, S.L.	Kaia-Kaipeko espazioak eta prozesuak hobetzea bikaintasuna sendotzeko	194.611,95	% 40	77.844,78
3	00003-GBK2024-52	B56622772	Vaskitorio, S.L.	Sagardoteka El Vaskito jatexea	113.000,00	% 40	45.200,00
4	00004-GBK2024-52	B75106062	Restaurante Zelai Txiki, S.L.	Gastrobikain 24	80.889,45	% 40	32.355,78
5	00005-GBK2024-52	B75107581	Matias Gorrochategui Casa Julian Tolosa, S.L.	Casa Julian	182.226,36	% 40	72.890,54
6	00006-GBK2024-52	B75103754	El Rey del Rodaballo, S.L.	Bezeroen espazioa handitzea	103.331,80	% 40	41.332,74
7	00008-GBK2024-52	***0846**	Julen Bergantiños Santos	Islares jate txeko bikaintasuna hobetzea	75.879,83	% 40	30.351,94
8	00009-GBK2024-52	B55405807	Kroketeria Donostiarra, S.L.	Kroketeria Donostiarra	74.590,50	% 30	22.377,16
9	00010-GBK2024-52	E75056978	Pedro Maria Ruiz Elizondo y otros, C.B.	Nicolás jate txeko espazioak eta prozesuak hobetzea bikaintasuna sendotzeko	96.176,41	% 40	38.470,57
10	00011-GBK2024-52	B75230011	Idoia Culinary, S.L.	Idoia sukaldia handitzea bikaintasuna sendotzeko	145.099,68	% 40	58.039,87